

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**INDARKERIA BIKOTE GAZTEEN HARREMANETAN: FAKTORE
ANITZEKO ERREALITATEA**

Egilea: Amaia del Pozo Viñaras

Zuzendaria: Maria Dosil Santamaria

Leioan, 2021eko maiatzaren 30ean

INDARKERIA BIKOTE GAZTEEN HARREMANETAN: FAKTORE ANITZEKO ERREALITATEA

Amaia del Pozo Viñaras

UPV/EHU

Bikote gazteen harremanetako indarkeria gizarte eta osasun publikoko arazotzat hartu da azkenaldian, prebalentziak oso altuak baitira. Ikerketa honen helburua bikote gazteen harremanetako indarkeriaren inpaktua, eta berarekin erlazioatutako faktoreak (sexismoa, autoestimua) neurtzea izan da. Ikerketan bi sexuetako 403 pertsonak parte hartu dute, 18 eta 30 urte bitartekoak. Ikerketaren emaitzek erakutsi dute indarkeriaren eta sexismoaren artean korrelazioa dagoela, eta autoestimua erlazio negatiboa duela biktimizazioarekin. Gainera, biktimizazioan, indarkeria erlazional eta fisiko motetan zehazki, desberdintasunak daude sexuen artean, mutilak mota horietan biktimizazio altuagoa dutelarik. Adina esanguratsua da, gazte helduenak puntuazio altuagoa izan baitute indarkerian. Ikerketa hau *offline* izan da eta etorkizuneko ikerketetan *online* gertatzen den indarkeria ikertzea garrantzitsua deritzot gazteen gizarteratzeko tresnak direlako.

Bikote-harremanak, indarkeria, biktimizazioa, sexismoa, autoestimua

La violencia en las relaciones de noviazgo ha sido percibida en los últimos tiempos como un problema social y de salud pública, ya que las prevalencias son muy altas. El objetivo de esta investigación es medir el impacto de la violencia en las relaciones de noviazgo y los factores relacionados con ella (sexismo, autoestima). En este estudio han participado 403 personas de ambos sexos y entre 18 y 30 años. Se concluye que existe una correlación entre violencia y sexismo y que la autoestima tiene una relación negativa con la victimización. Además, en la victimización, en concreto en los tipos de violencia relacional y física, se da una diferencia entre sexos, con una mayor victimización de los chicos en este tipo. La edad ha sido significativa, los jóvenes adultos han tenido una puntuación más alta en violencia. Esta investigación ha sido *offline* y considero importante la violencia investigada *online* en las investigaciones de futuro.

Relaciones de noviazgo, violencia, victimización, sexismo, autoestima

Violence in dating relationships has been perceived in recent times as a social and public health problem, since the prevalences are very high. The objective of this research is to measure the impact of violence in dating relationships and the factors related to it (sexism, self-esteem). This study has been carried out with 403 people of both genders and between the ages of 18 and 30. It has concluded that there is a correlation between violence and sexism and that self-esteem has a negative relation with victimization. In addition, in victimization -specifically in the types of relational and physical violence- there is a difference between sexes, with a more pronounced victimization of boys in this type. Age has also been significant: young adults have had a higher score in violence. This research has been offline and I consider that investigating online violence will be important in future research.

Dating relationships, violence, victimization, sexism, self-esteem

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. Zer da Indarkeria?	4
2.1.1. Indarkeriaren definizioa	4
2.1.2. Indarkeria ikusgaia, ikusezina eta indarkeria motak	5
2.1.3. Jarrera sexisten ibilbidea eta testuingurua	6
2.2. Indarkeria bikote gazteen harremanetan	7
2.2.1. Nerabezaroa eta gaztaroa	7
2.2.2. Bikote gazteen harremanetako indarkeria motak	8
2.2.3. Lehenengo maitasun erlazioak: prebalentziak	10
2.3. Bikote gazteen harremanetako indarkeriari lotutako faktoreak	11
2.3.1. Arrisku eta babes faktoreak	12
2.3.2. Prebentzioa	15
3. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK	17
4. METODOLOGIA	17
4.1. Ikerketaren diseinua	17
4.2. Partaideak	17
4.3. Tresnak	17
4.4. Prozedura	19
4.5. Datuen analisia	20
5. EMAITZAK	20
5.1. Indarkeria motak bikote gazteen harremanetako indarkerian eta sexua.	20
5.2. Indarkeria bikote gazteen harremanetan eta adina.	21
5.3. Indarkeria moten perpretazioa eta biktimizazioa gazte tutelatuen eta ez-tutelatuen artean.	22
5.4. Korrelazioa sexismoaren eta indarkeriaren artean.	22
5.5. Indarkeria bikote harremanaren iraupenaren arabera	23
6. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA	23
7. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA	26
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	27

1. SARRERA

Bikote harremanen arteko indarkeria kontu iluna da, eta historia bezain zaharra. Betidanik ezagutu dira sufrikario hori jasan duten bikotekideak, baina problematika horretaz hizketan hastea fenomeno oso berantiarra izan da. Baina izena duenak baino ez du izanik. Eta apurka-apurka izan bada ere, terminologia sortzen joan da fenomeno horren inguruan. Hala ere, ikusgaitasuna lortu duena errealitatearen zati txiki bat baino ez da, izeberg-aren punta deritzona. Sustriak, izotz zatirik mardulenak, askoz sakonagoak ditu, oro har indarkeriak, eta bikoteen artekoak, zehazki. Izan ere, hainbat eremutatik planteatu da indarkeria ez dela berez sortzen ezkonduetako harremanetan; sarritan, nerabezaroan eta gaztaroan hasten da. Ikerketa askok erakutsi dute bizitza erromantikoaren hastapenetako etapan, nerabezaroan, ere bikotearen tratu txarrak eta indarkeria ager daitezkeela. Nerabezaroan agertzen diren harreman afektiboek ondorengo harremanak ezartzeko jarraibidea markatzen dute.

Bikote gazteen harremanetako testuinguruan gertatzen den indarkeria gizarte eta osasun publikoko arazotzat hartu da azkenaldian, eta gero eta interesgune handiagoa da hainbat esparrutako ikertzaileentzat. Ikerketa ugari zuzendu dira urteetan zehar arazo hori hainbat jarduera-eremutatik zehatz-mehatz ezagutzera. Egin diren aurrerapen guztiak eta informazio eta sentsibilizazio-kanpainak gorabehera, gai horri buruzko azterlanak egiten dituzten erakunde gehienek diote oraindik ere "izeberg puntaren" aurrean gaudela, urtez urte egiazta daitekeen errealitatea baita indarkeria-mota horrek ez duela etenik izan. Gaur egun gaitz sozialari aurre egiteko dugun tresnarik handienetako bat gizarte-hezkuntza da. Gizarte-hezkuntza funtsezkoa da bikote gazteen harremanetako indarkeria prebenitzeko, eta, alde horretatik, funtsezkoa da gizarte-hezkuntzako profesionalek diziplina anitzeko baliabideak, teoriak eta esku-hartze profesionaleko esperientziak ezagutzeaz gain, egoera horietan kaudimenez esku-hartzeko behar diren trebetasunak eta estrategiak garatzeko gai izatea. Horretarako formakuntza ezinbestekoa da, neronek ere gai honekin zerikusia duten zenbait ikastaro egin ditut azken urtean (I. eranskin).

Hurrengo orrialdeetan, lehenik eta behin hurbilpen teoriko bat egin da bikote gazteen harreman *offline* indarkeriari buruz, kontzeptualizazioa, indarkeria motak eta prebalentziak besteak beste, horrez gain, fenomeno honi lotutako faktoreak aztertu dira baita prebentzioa ere. Ostean 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean ikerketa bat burutu da. Emaitz batzuk interpretatu dira eta ondorio batzuk atera dira lagungarriak izan direnak etorkizuneko ikerketetan aldagai berriak aztertzeko.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Zer da Indarkeria?

2.1.1. Indarkeriaren definizioa

Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) (2002, 3or) horrela definitzen du indarkeria:

“Indarkeria indar fisikoa edo mehatxuak nahita erabiltzea da, norberaren, beste pertsona baten, talde baten edo komunitate baten aurka. Horrek traumatismoa, kalte psikologikoak, garapen-arazoak edo heriotza sortu ditzake”.

OME-ren (2002) definizioa oinarritzkoa da, eta gaiaren inguruan teorizatu duten besteek hori oinarritzat badute ere, haratago joan dira indarkeria zer den eta ze esferatan gertatzen den azaltzeko. Adibidez Rojas-en (1995) ustetan estatua sortzeaz batera indarkeria ezartzen da; erregimena ezartzeko indarkeria ezinbestekoa baita. Baina indarkeria ez da bakarrik estatuaren sorreran erabiltzen erregimena zilegi izateko ezinbestekoa baita; agerikoena orduan bada ere, behin boterea egonkortuta, indarkeriak bere horretan jarraitzen du. Baina, zilegi den indarkeriak, eguneroko bizitzan ageri denak, “ordena publikoaren defentsaren forma” hartzen du.

Rojas-ek (1995) dioenaren arabera, ukaezina da, indarkeria boterearen aldagai garrantzitsuenetarikoa dela, jaiotzen garen unetik, indarkeriak jakintzarekin eta diruarekin batera, norbanakoen bizitza baldintzatzen du. Azken bi horiek (jakintza eta dirua) aldakorrak dira, saritzeko edo zigortzeko erabili daitezkeelako. Indarkeria ostera, boterearen formarik oinarritzkoena eta primitiboena da, zigortzeko, suntsitzeko eta min egiteko soilik balio baitu. Rojas-en (1995) ustetan, ez da berezkoa den zerbait, baizik eta, bizitzako etapa guztietan garatzen dena; indarkeriaren haziak bizitzako lehen urteetan hazten dira, haurtzaroan garatu eta nerabezaroan ematen dituzte bere fruituak.

OME-ren (2002) definizioarekin jarraituz, ez dago arrazoi zehatzik pertsona bat bortitza izateko, baina azterketa egiteko erabili duen eredu ekologikoak erakutsi du faktore biologiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoek baldintzatzen dutela pertsonaren joera hori, beraz, eredu hau lau mailatan banatzen du: (1) maila indibidualean, (2) harremanen mailan, (3) testuingurukoan eta, (4) sozialean.

Maila indibidualean pertsona horren faktore biologikoei batzen zaizkie bere bizipenak: ezaugarri demografikoak, nahasmendu psikikoak, toxikomaniak eta tratu txarrak jasan izanaren aurrekariak. *Harremanen mailan*, pertsona horrek besteekin izan dituen elkarrekintzak aztertzen ditu; afektu eza edo lagun delitugileak izatea. *Testuingurukoa*, indarkeria sorrarazten duten eremuen ezaugarriak identifikatzen saiatzen

da, pobrezia, kapital sozialik eza, besteak beste. Azkenik, *Sozialak* egitura bera hartzen du kontuan, gizarte politikak aztertu eta beraien akatsak identifikatzen ditu egoera bortitzak deuseztatzeko bidean.

2.1.2. Indarkeria ikusgaia, ikusezina eta indarkeria motak

Castaños-ek (2016) azaltzen du agerikoa ez den indarkeria askoz ugariagoa eta egonkortuagoa dela ikusten dena baino, izan ere, isiltasunak laguntzen du, eta kontzientzia faltak babesa ematen dio. Baina, hain zuzen ere, indarkeria bezala ez ulertzeak, hori zuzentzea zailtzen du. Hain sotil izateagatik, “kaleko hizkera” bezala ulertzen dira zenbait indarkeria mota; baina, indarkeria bezala ulertzen direnean eta biktimak horiei aurre egitea erabakitzen duenean, erru eta beldur sentimenduak areagotzen dira, hori gainditzeko “harresia” handituz. Izan ere, Castaños-ek (2016) begi bistako indarkeria izeberg-aren punta baino ez dela dio, atentzioa ematen duen zati txiki bat, horretan zentratzeko; indarkeriaren zatirik handiena (ezkutukoa) ikusmiratik kanpo utziz. Autore berdinarekin jarraituz, iruditeri kolektiboan, indarkeria kontzienteki egiten den zerbait dela dio, baina ez da horrela kasu guztietan, urteen poderioz barneratutako zerbait da, inkontzientziak bereganatu duena. Indarkeria, hein batean, normalizatuta dago jendartean.

Galtung-ek (1984) gatazka sozialetan indarkeria sortzeko dinamika irudikatzen sortutako kontzeptua indarkeriaren triangeluarekin erlazionatu da (ikus 1.irudia).



1. Irudia Ageriko indarkeria gatazkaren zati txiki gisa irudikatua. Iturria: Galtung (1984). Norberak moldatua.

Beste autore batzuek, indarkeriak hiru esferatan eragiten duela diote eta hain zuzen ere, horren sailkapena egin dute: *Indarkeria fisikoa*: Connolly et al.,-ek (2010) indarkeria mota hau tradizionalki ikusgarriena izan dela diote, ikertzaileen atentzio kliniko, sozial eta legal handiena lortu izan duelako. Eraso fisikoaren barruan sartzen da edozein jokabide oldarkor, besteak beste, objektu bat jaurtitzea, zaplazteko ematea, edo jipoia ematea. Aldiz, Muñoz-Rivas et al.-ek (2007) bi motatan banatu dute: indarkeria fisiko arina (eustea, objektu bat jaurtitzea..) eta indarkeria fisiko bortitza (jipoia ematea, itotzen saiatzea...).

Indarkeria psikologikoa edo emozionala: Alberdi eta Matas-ek (2002) eraso psikologikoa beste pertsonari balioa kentzera bideratutako jokabide oro dela diote. Bere baitan honako hauek hartzen dituzte; hitzezko mehatxuak eta irainak, umilazioa; isolamendu soziala eta ekonomikoa; jeloskortasuna eta posesibotasuna. Alberdi eta Matas-en (2002) esanetan, begi bistakoa ez den indarkeria baten bitartez, pertsona baten autoestimua deuseztatzean, eta ondorioz, eragin psikologikoak izatean datza indarkeria mota honek. Begi bistakoa ez denez, identifikatzeko eta sailkatzeko zailagoa da, hala ere, hainbat autorek indarkeria psikologiko mota desberdinak izendatu dituzte, baina, O'Leary eta Slep-enak (2003) izan du oihartzun handiena. Hauek hirutan zatitu zuten indarkeria mota hau: (1) hitzezko erasoak (oihu egitea), (2) jarrera kontrolatzaileak (bere lagunekin komunikazioa mozten ahalegintzea) eta azkenik, (3) jokaera jeloskorrak (azalpenak eskatzea). Indarkeria psikologikoa fisikoa baino ugariagoa da, dena den, horrek ez du esan nahi besteak baino arinagoa denik, hain zuzen ere Capaldi eta Crosby-ek (1997) diotenaren arabera fisikoak bezain ondorio larriak izan ditzake biktimarengan. Are gehiago, indarkeria fisikoa egoten den kasuetan psikologikoa izaten du aurrekari, oro har. Beste zenbaitetan indarkeria fisikoak bidea egina duenean ere, psikologikoki jazartzen jarraitzen du erasotzaileak.

Indarkeria sexuala: Alberdi eta Matas-ek (2002) hala definitzen dute: presio psikiko edo fisikoen bidez nahi ez diren sexu harremanak izatera behartzea. Cornelius eta Resseguie-k (2007), gehitu dute indarkeria mota hau jarraia izan daitekeela, bikotekide batek besteak nahi duena baino maiztasun handiagorekin behartzen baitu sexu harremanak izatera. Dena den, Oswald eta Russell-ek (2006) azpimarratzen dute, sexu harremanak ez direla soilik koitoa; musu batetik hasi eta sarketara arteko sexu praktikak behartzea indarkeriatzat jotzen dituzte. Mota hau ere, gehiago ematen da gazteen artean helduen artean baino (Barnett et al., 1997).

2.1.3. Jarrera sexisten ibilbidea eta testuingurua

Sexismoa¹ historia osoan zehar egon da baina urteen poderioz garatzen jakin du eta sotilagoa eta ezkutukoagoa bihurtu da jendearen begietara. Hala ere, sexismoa egon

¹ Sexismoa pertsona bat bere ezaugarri biologikoengatik soilik diskriminatzea da. Termino hori tradizionalki emakumeekiko egindako erasoetan erabili da (batez ere, emakumeak moralki, biologikoki eta intelektualki gizonak baino gutxiago direla defendatzen dutenen artean) baina gero eta ohikoagoa da gizonezkoak ere barnebiltzea termino berean. Izan ere, Arnoso et al.-ek (2017) ikerketan ondorioztatu zuten ez dagoela froga enpirikorik sexismoa noranzko bakarrean baieztatzeko.

badago, Glick eta Fiske (1996) sexismo anibalentearen teoriaren aitzindariak dira. Teoria honetan sexismoa bi motatan sailkatu zuten. Lehena, *etsaitasunezko sexismoa (hostil)*, sexismo tradizioaletik hurbilen dagoena da. Sexismo mota honek estereotipo sexistak erreproduzitzean datza eta emakumeak gizonezkoak baino gutxiago direla defendatzen du, sistema patriarkala indartuz. Bigarrena, *sexismo onbera (benebolente)* da, estereotipo sexistak egon badaude, baina, tonu askoz goxoago, eta positiboagoan. Batak zein bestek hiru printzipiotatik edaten dute; paternalismoa, genero desberdintasuna eta heterosexualitatea. Hiru hauek zuzenki harremantzen dira botere sozialarekin, genero identitatearekin eta sexualitatearekin, eta, bi sexismoekin ere erlazionatzean, nolabaiteko anibalentzia sortzen dute, eta, aldi berean, bi generoen arteko desberdintasun-baldintzak justifikatzen laguntzen dute (Glick eta Fiske, 1996).

Prada eta Perles-ek (2012) azaldu zuten gizartearen egitura pertsona bat gizon edo emakume jaio ez dutela berdin hezten. Txikitatik genero bati edo besteari rol jakin batzuk esleitzen dizkiete eta pertsonaren identitatearengan eragina izaten du. Gainera, Colás eta Villaciervos-ek (2007) diote, generoa eraikuntza soziokultural horren iraupenean hezkuntzak berebiziko garrantzia duela. Beste autoreentzat genero rolek mundua bitan sailkatzen duten heinean, talde bakoitzari ezaugarri edo betebeharrak jakin batzuk egozten dizkio gizarteak eta hain zuzen ere horretan datza estereotipazioak (Alonso et al., 2016). Bestalde, Marroquí eta Cervera-k (2014) adierazi zuten, maitasun erromantikoak genero rolen gainean eratzten eta genero rol horiek errepikatzen direla harremanen barruan. Hau da, bikotekide bakoitzak izan behar duen rola zehazten du eta era berean, “benetako” maitasuna bikotekide bakoitzaren bizitzaren ardatz bilakatzen du. Hori horrela, gizona da emakumea eta etxea babestu eta zaindu behar dituen, eta emakumea aldiz, pazientzia eta familiaren zaintza hartzen dituena.

2.2. Indarkeria bikote gazteen harremanetan

2.2.1. Nerabezaroa eta gaztaroa

Nerabezaroa²; haurtzaroaren eta helduaroaren arteko igarotze-aldia da, gero eta bizitza autonomoago baterako zubia. Gaete-k (2015) eraldatze-prozesu hau hiru etapatan banatzen du, hauetako bakoitza bere ezaugarri propio eta aldaketa sozialekin definituz:

² Garai horretan, aldaketa fisikoak, emozionalak eta kognitiboak gertatzen dira, eta azken horiei esker, norbanakoa bere ideia propioak sortuz eta errealitatea ulertuz joaten da, besteak beste. Hain zuzen ere, eraldatze-prozesu horren ondorioz, nerabeak harreman pertsonalak eta sozialak ezartzen joaten dira (Furman eta Shaffer, 2003).

Goiztiarra: (10-13) aldi kritikoa izaten da, haurtzaroaren amaieran aldaketa fisiko eta psikikoei aurre egin behar baitiete, eta batzuetan zaila egiten zaie. Gainera, norbanakoak bere lehen erabaki independenteak hartu behar ditu, gurasoek ezartzen dituzten mugen barruan.

Ertaina: (14-17) Adin tarte honek sentimendu oso desberdinak biltzen ditu. Batetik, nerabeek egolatriarako joera handia dute, baina baita gizartearen onarpena bilatzekoa ere. Bestera, autonomiaren beharra nagusitzen da beraien artean: lehen harreman sentimentalak hasten dira, gehienetan adin bertsuko taldeetan.

Berantiarra: (17tik aurrera) nerabeak behin betiko helduak izatera igarotzeko prozesuko azken fasea da. Adin tarte honetan ohikoak dira identitate krisiak, izan ere, etorkizunean eragina izan dezaketen erabakiak hartzera behartuta sentitzen dira.

Beste egile batzuentzat, aldiz, 11-13 urte bitartean, nerabezaroaren aurrekoa edo nerabezaro goiztiarra hasten da; 14-16 urte bitartean, nerabezaro ertaina; eta 18-20 urte bitartean, nerabezaro berantiarra (Garaigordobil, 2000). Bizi zikloko aldi hau, aldaketa garaia da, eta sentimenduak intentsitate handiz bizitzen dira. Bikote harremanek esangura handia irabazten dute, ongizate psikosoziala indartzen baitute; baina konpromiso baxuaren ondorioz, hauen iraupena laburra izaten da (Cleveland et al., 2003). Furman eta Shaffer-en (2003) arabera, bikote gazteen harremanetan garatzen diren trebetasunak oinarrizkoak dira helduarorako. Hain zuzen ere, adin horretako lehen harremanek etorkizuneko harremanen kontzeptua baldintzatuko dute. Bi adituek azpimarratu dute lehen harremanen ondorioz sor daitezkeela etorkizuneko arazoak, momentuan garrantzirik ematen ez bazaie ere. Bat datoz Bilboko Familia Indarkeriaren Zerbitzuarekin; erregistratutako kasuen % 22tan, indarkeria-arazoak bikote gazteen harremanetan hasten baitira (Echeburúa eta Corral, 1998). Datu horiek erakusten dute, erasoak ez direla berez sortzen ezkonduetako edo bizikidetza harremanetan; sarritan, bikote gazteen arteko harremanetan hasten dira (Serran eta Firestone, 2004).

2.2.2. Bikote gazteen harremanetako indarkeria motak

Jouriles et al.-ek (2009) ondorioztatu dute nerabe eta heldu gazteen bikote-harremanetan indarkeriaren tasa handiagoa dela bizikidetza-harreman egonkorretan baino. Izan ere, ikerketa-tresnen eta erabilitako indarkeriaren definizioaren arabera emaitzak nabarmen aldatzen badira ere, heldu ezkonduen indarkeriaren prebalentzia-tasak baino bi edo hiru aldiz handiagoak dira bikote gazteen harremanetakoak (González-Ortega et al., 2008; Póo eta Vizcarra, 2008).

Wincenta et al.-ek (2017) diotenez, nerabezaroan orokortuta dagoen arazo bat da bikote gazteen harremanetako indarkeria (BGI³). Autore batzuek, honela definitu zuten BGI: pertsona bat indarkeria fisiko, sexual edo psikologikoaren bidez kontrolatzeko edo menderatzeko edozein saiakera, nolabaiteko kaltea eraginez (Wolfe et al., 2001). BGI-k sexua aintzakotzat izan gabe, bi noranzkoetan ematen den fenomeno da Hala ere, Estatu mailako ikerketetan mota horretako ebidentzia enpirikorik aurkitu ez badute ere, nazioarte mailan egindako zenbaitek adierazi dute mutilak direla indarkeria burutzen dutenak (Makepeace, 1981). Beste zenbaitek, aldiz, neskak jarri dituzte jazarletzat (Fernández-Fuertes eta Fuertes, 2010). Indarkeriaren biktimen identitatean ere ez dago adostasunik: batzuek diote ausazkoa dela, ez dagoela sexuen artean desberdintasunik (Bell eta Naugle, 2007), beste batzuek, aldiz, neskak dituzte biktima orokortzat (Rodríguez, 2015). Badago indarkeria aldebikoa dela “bidireccional” esaten dutenak ere (Celis-Sauce eta Rojas-Solís, 2015).

Adinari dagokionez, Cava et al.-ek (2015) azaldu dute, bikotekideen arteko indarkeria adin guztietan gertatzen bada ere, nerabeen artekoa aztertu dutela ikertzaile askok, gehien ikertzen duten arloetakoa bilakatu arte (Viejo, 2014). Izan ere, indarkeria goiztiarrak etorkizuneko harremanetan eragina izan dezake, helduaroan errepikatu daitekeena (Riggs eta O’Leary, 1996) . Hain zuzen ere Zarza eta Forján-ek (2005) azpimarratzen dute nerabezaroan gertatzen den bortxa ekiditea ezinbestekoa dela etorkizunean ez errepikatzeko. Taft et al.-ek (2009) BGI edozein motatako eraso izanda ere, narriadura larria eragin dezakeela diote, biktimen osasun fisiko zein mentalean eta pertsonen arteko harremanetan, bai unean bertan, bai epe luzean ere. Van Geel et al.-k (2014) nahiago dute indarkeria-motak portaera zuzenetan (adibidez, eraso fisikoak) eta zeharkakoetan (adibidez, mehatxua eta eraso hitz-emozionala) sailkatzea. Schwartz et al. (2004) adierazten dute BGI-aren ehuneko handi bat psikologikoa izaten dela fisikoa baino gehiago, batez ere harremanaren hasieran, eta, denborarekin, fisikoa bihurtu daitekeela. Ybarra et al.-en (2016) ustez, indarkeria psikologikoa askoz ohikoagoa da gazteen artean. O’Leary eta Smith-Slep (2003) egileek nerabeekin egindako ikerketan hiru indarkeria mota azpimarratu zituzten: (1) hitzezko eraso, (2) jarrera kontrolatzaileak eta, (3) jokabide jeloskorrak. Autore hauek baieztatu dute hitzezko-emozionala dela eraso psikologikoen modurik aztertuen (adibidez, irainak, mehatxuak, bikotekideari zerbait esatea min egiteko

³ BGI: Akronimo hau erabiliko dut lan osoan zehar bikote gazteen harremanetako indarkeriari erreferentzia egiteko.

asmoz...). Gainera, indarkeria psikologikoak autoestimua kaltetzen duela diote, eta tratu txar fisikoak baino ondorio handiagoak izan ditzakete. Horrez gain, beste egile batzuk, harremani eragiten dien indarkeria ere aipatzen dute; Little et al.,-ek (2003) beste pertsona baten lagunartean kaltea eragiten saiatzen den indarkeria mota bezala definitzen dute, eta modu sotilenean eta gutxien ikusten den mota gisa deskribatzen dute.

2.2.3. Lehenengo maitasun erlazioak: prebalentziak

BGI-ri buruzko ikerketa oraindik ez da larregi garatutako arlo bat (Muñoz-Rivas et al., 2007; Ortega et al., 2008). Espainiako Estatuan egindako ikerketek, nazioartekoek bezalaxe, ondorioztatu dute gazteen %30 inguruk bizi izan duela edo bizi duela BGI (Muñoz-Rivas et al., 2007). Sears et al.,-ek (2007) 12 eta 18 urte bitarteko 633 mutil eta neska kanadarrekin egindako ikerketan, mutilen %35ak indarkeria psikologikoko ekintzak, %15ak indarkeria fisikoko ekintzak eta %17ak sexu-indarkeria egin zutela ondorioztatu zuten, eta emakumeen artean %47ak indarkeria psikologikoa erabili zuela, %28ak fisikoa eta %5ak sexuala. Muñoz-Rivas et al.,-ek (2007) egindako ikerketan, Madrilgo Bigarren Hezkuntzako 36 eskolako 2.416 nerabe eta gazte ezkongaberen artean aurkitu zuten emakumeen %95.3ak eta gizonen %92.8ak hitzezko jokabide oldarkorrak erabili zituztela, eta emakumeen %2ak eta gizonen %4.6ak eraso fisikoak. OME-k (1998) kaleratutako ikerketa baten arabera, unibertsitateko emakumezko ikasleen %30ak bikote harremanetan nolabaiteko indarkeria jasan zuela aitortu zuen, eta ondorioztatu zen hitzezko erasoak fisiko bihurtzen zirela denboraren poderioz.

Indarkeria fisikoari dagokionez, unibertsitateko ikasleen artean burututako eraso fisikoak aztertu zituzten Swart et al.,-ek (2002), eta ondorioztatu zuten, emakumeen %43.5a eta gizonezkoen %35.3a jazarri zitzaizela bikotekideei. Eraso gehienak arinak izan baziren ere, lagin osotik emakumezkoen %16ak eta gizonezkoen %27ak eraso bortitzak burutu zituen. O'Leary et al.,-en (2005) datuen arabera, emakumeen %39ak eta gizonen %24ak jokabide oldarkorrak izan zituzten ikerketa egindako urtean. Dye eta Eckhardt-ek (2000) jakinarazi zuten, %27ak (%28.3 eta %25.3 mutilak eta neskak, hurrenez hurren) gutxienez eraso fisiko bat egin zuten bikotekideen aurka. Zehazki, ekintza agresiborik ohikoenak hauek ziren: heldzea eta bultzatzea (%53.7), kontrol fisikorako ahaleginak (%44.8) eta bikotekideari objektuen bat botatzea (%34.3).


Indarkeria psikologikoa, da gehien gertatzen dena eta honi buruzko ikerketetan Schumacher eta Slep-ek (2004) ikusi zuten mutilen %84ak eta nesken %94ak hitzezko erasoak egiten zizkietela beren bikotekideei. Ildo beretik, Shook et al.,-ek (2000) joera bera

ikusitako galdekatutako 572 unibertsitateko ikasleen artean. Lagin horretatik %82ak onartu zuten beren bikotekidea hitzez eraso zuela. Ramírez-en (2002) ikerketatarako erabilitako laginaren totalen, %57,3a zen indarkeria mota hau jasan dutenak eta %60a eragin dutenak. Espainian egindako beste ikerketa batean, ehuneko totalak altuagoak izan dira, %69,2 eta %74,9 hurrenez hurren. Eraso ohikoenak errespetu faltak, gutxiestea eta iraintzea edo garrasi egitea izan direlarik.

Azkenik, *indarkeria sexualari* dagokionez, Humphrey eta White-ek (2000) egindako ikerketetan ondorioztatu dute sexu-erasoak jasan dituzten unibertsitateko nesken %69.8ak eraso 14 eta 18 urte bitartean gertatu zela. Zehazki, Laurie-k (2005) 15 eta 19 urte bitarteko 600 nerabe laginarekin lortutako emaitzen arabera, %64ak sexu-hertsapen motaren bat egin edo jasan zuten harreman intimoetan. Era berean, %53.5a zen biktima eta %10.8a jazarlea; mehatxuak ziren hertsadura mota ohikoena.

2.3. Bikote gazteen harremanetako indarkeriari lotutako faktoreak

Muñoz- en (2016) esanetan, hainbat ikuspegi teorikotatik planteatu da BGI ez dagoela faktore etiologiko bakar baten mende, baizik eta hainbat aldagairen interdependentziak eragindako fenomeno konplexua dela. Rubio-Garay et al. (2016) azaltzen dutenaren arabera, BGI-arekin lotutako faktore guztiak, bi kategorian handitan bil daitezke, azterketa sinplifikatzeko: (a) faktore (inter)pertsonalak (biologikoak, jokabidezkoak, psiko-logikoak eta erlazionalak) eta (b) testuinguru-faktoreak (ingurune fisiko, historiko, familiar, ekonomiko, sozial eta komunitarioarekin lotutakoak). Gainera, egindako paperaren arabera taldekatu daitezke, 1)azkartzaileak 2)bideratzailea 3)modulatzaileak 4)inhibitzaileak (Ikusi 2. irudia).



2. Irudia Bikote gazteen harremanetako indarkeriarekin lotutako aldagaiak. Iturria: Rubio-Garay (2016). Norberak moldatua.

Lehenengoa, 1) BGI-ren agerpena *azkartu* dezaketen aldagaiak: alkohola eta beste droga batzuk gertakarien sorreran eragin dezakete (Shorey et al., 2011), era berean, ikerketa batzuek agerian uzten dute estres psikosozialak eragin handia izan duela (Chase et al., 2002). Bigarrena, 2) indarkeria *bideratu* dezaketen aldagaiak dira, erasoak eta biktimizazioa erraztu ditzakete: zenbait asaldura psikopatologiko, jeloskortasuna eta jokabide kontrolatzaileak, tratu txarrak eta sexu-abusua haurtzaroan jasan izana beste bikote batzuen aurkako indarkeriaren aurrekariak, etab (Sebastián et al., 2010). Hirugarrena, 3) faktore batzuen eta BGI-aren arteko lotura *modulatu* dezaketen aldagaiak dira. Hala nola, genero-estereotipoek eta indarkeriaren aldeko jarrerak; emakumeen biktimizazioa eta erasoak errazten dituzte (Shen et al., 2012). Azkenik, laugarrena, 4) BGI *inhibitu* dezaketen aldagaiak dira. Aldagai jakin batzuen intentsitate-mailaren arabera, erasoak edo biktimizazioa erraztu ahal izango dituzte, edo inhibitzeko edo babesteko eginkizuna izan, hala nola komunikaziorako eta arazoak errazteko subjektuak dituen trebetasunak (Foshee et al., 2008).

2.3.1. Arrisku eta babes faktoreak

Sugarman eta Hotaling-ek (1989) arrisku-faktoretzat hartzen dute BGI-an erasotzaile edo biktima bihurtzeko probabilitatearekin lotu daitekeen edozein ezaugarri (indibiduala, ingurumenarena edo egoera-testuinguruarena), hau da, probabilitatea handitzen duen baldintza bat da, baina ez ditu nahitaez sortzen. Swart et al.,-ek (2002) diote, mota honetako fenomeno konplexuak eta polemikoak aztertzerako orduan, arrisku faktoreak ulertzea dela teknikarik eraginkorrena. Horregatik, zenbait ikerketatan kontuan hartu dituzte biktimaren zein erasotzailearen arrisku faktoreak (Vézina eta Hebert, 2007). Faktore horiek indarkeriaren hastapenak dira, eta indarkeria sortzeko probabilitatearekin harremantzen dira, esponentzialki. BGI sorrarazten duten arrisku faktoreak lau taldetan banatu dituzte adituek (González ,2011) (ikusi Taula 1):

1. Taula BGI sorrarazten duten arrisku faktoreak. (González ,2011). Norberak moldatua.

	SOZIODEMOGRAFIKOAK	HISTORIKOAK	KLINIKOAK	INTERPERTSONALAK ETA ANBIENTALAK
AZALPENA	Gizartea da gizabanakoak elkarbizitzen diren esparru orokorra, beraz, testuinguru social zabal honetan dauden arrisku-faktoreak argiak dira.	Norbanakoaren jokabidean eragin zuzena izan dezake figura edo eredu “desegoki” baten imitazio edo behaketa hutsagatik soilik.	Aldagai hauek dira ikerketetan gehien landu direnak, eta nortasunaren ezaugarriei, jokabide-arazo jakin batzuen presentziari arazo patologikoei edo indarkeriako jarrera personal jakin batzuei egiten diete erreferentzia.	Gizabanakoen berezko ezaugarri eta gizarte-talde desberdinetatik datozen ezbeharren arteko elkarrekintza konplexuari egiten diote erreferentzia.
ADIBIDEA	Aldaketa etnikoak, bizilekuen arteko aldeak eta estatus sozioekonomikoa.	Hautzaroko tratu txarrak, hezkuntza-praktika desegokiak, familia barruko indarkeria eta, gurasoen banaketa.	Drogak eta alkohola, haserrearen kontrola, indarkeria justifikatzen dituzten jokabideak, genero-rolen jarrera eta sinesmen tradizionalak, kontrola, jeloskortasuna, autoestimua, enpatiarik eza.	Arazoak konpontzeko trebetasunik eza, komunikazio trebetasunen narriadura, taldearen eragina eta influentzia eta harremanaren asebetetze defizita.

Vagi et al.,-ek (2013) diote, gutxiago direla BGI-aren faktore babesleak aztertzen saiatu izan diren azterlanak. Babes-faktoreak, norbanakoa lehen maitasun erlazio bortitz batean parte hartzetik babes dezaketen ezaugarri pertsonalak edo inguruneak dira, edo, harreman bortitz batean parte hartuz gero, harreman hori uztea erraztu dezaketenak (Foshee et al., 2008). Enpatia handia, kalifikazioen batez besteko ona, eskolarekiko atxikimendua eta amarekiko harreman positiboa identifikatu ziren besteak beste faktore babesle gisa (McCloskey eta Licther, 2003). Rubio-Garay et al.,-ek (2015), berriz, honako hauek gehitu dituzte: komunikatzeko eta arazoak ebazteko trebetasunak, autoeraginkortasuna hautematea, errendimendu akademiko positiboa, gizarte-laguntza eta hazkuntza-ohitura positiboak izatea.

Autoestimua indarkeria erraztu edo inhibitu dezake, baina eragin modulatzailerak ere izan dezake hirugarren aldagaiekin erlazionatzean. Adibidez, autoestimua txikia bikotekidea erasotzeko (Magdol et al., 1998) eta erasotua izateko (Foshee et al., 2004) arrisku handiagoarekin lotu da; aitzitik, autoestimua onak faktore babesle gisa joka dezake. Ikerketa ugari daude indarkeriaren eta autoestimua arteko lotura aztertzea helburu dutenak, hala ere, hauek ez dira eztaba daezinak. Adibidez, Prince eta Arias-ek (1994) erasotzaile perfil bat hauteman zuten, autoestimua altua izan arren, indarkeria erabiltzen zuten beren bizitzak kontrolatzeko ilusioa berreskuratzeko. Ikerlan honi buruzko ebidentzia empirikoak alderdi kontraesankorrak erakutsi ditu ikerketa anitzetan. Magdol-ek (1998) autoestimua baxua, depresio-sintomak eta nortasun antisozialaren nahasmendua, gizonen

jokabide oldarkorrekin lotuta zeudela ondorioztatu zuen, honen antzera, O'Keefe-k (1998) indarkeria eragiten zuten gizonetan autoestimua baxua zegoela frogatu zuen. Hala ere, beste lan batzuetan, autoestimua trinkotasun handirik gabeko aldagai bezala da hartu izan da (Follingstad et al., 1999).

Bestalde, biktimizazioan ere desadostasunak egon dira ikerketa desberdinen arabera. Aguilar eta Nightingale-k (1994) ondorioztatu dute biktimek autoestimua txikiagoa dutela horrelako esperientziarik jasan ez dutenek baino. Ildo horretan, Katz et al.,-ek (1997), 17 eta 23 urte bitarteko nesken lagin batean, ondorioztatu dute autoestimua eta erruduntasun-atribuzioak bikotekideei barkatzeko asmoarekin harremana duela. Aitzitik, beste azterlan batzuek ez dute autoestimua eta ondorengo biktimizazioaren arteko loturarik aurkitzen (Follingstad et al., 1999). De la Villa-Moral et al.,-en (2017) ikerketak, BGI-aren, mendekotasun emozionalaren eta autoestimua arteko lotura aurkitzea zuen helburu. Ikerketa hau 15 eta 26 urteko 224 pertsonarekin egin zen, generoari eta hezkuntza-mailari dagokienez dauden aldeak aurkitzeko. BGI-ren biktimek mendekotasun emozionalaren maila handiagoa eta autoestimua-maila txikia adierazten dute biktimizatu gabeek baino. Generoari dagokionez, laidotutako neskek autoestimua baxua dutela eta mutilek erosotasun eta manipulazio jokabideak maizago eragiten dituztela ikusi zuten. Gainera, BGI-aren biktimak ere autoestimua txikiagoa dute, eta autokontzeptuari ere eragiten diote (Carrascosa et al., 2016; Penado eta Rodicio-García, 2017).

Sexismoak BGI-n duen eginkizuna oso garrantzitsua da; izan ere, zenbait ikerketek berresten dute gizarte sexistek erakusten dituztela emakumeenganako indarkeriaren indize altuenak (Archer, 2006). Soto-Quevedorentzat (2012), sexismoa eta genero-itxaropenak funtsezko alderdiak dira bikote-indarkeriaren justifikazioan. Archerrek (2006) 52 herrialdetan egindako ikerketak erakutsi zuen jarrera sexistak eta bikote-harremanetan emakumeenganako indarkeriaren onarpena BGI-rekin lotu zirela. Genero-estereotipoak eta rola babesten dituzten jarrera sexistek funtsezko zeregina dute sexuaren arabera desberdintasunei eusteko, eta, beraz, baita BGI eusteko ere (Pazos et al., 2014). Soler et al.-ek (2005) adierazi zuten, genero-rolakiko ideia tradizionalagoa zuten nerabeek, gehiago onartzen zutela eraso psikologiko, fisiko eta sexuala erabiltzea neskekiko, mutilekiko baino. Izan ere, bere izaeragatik, sexismoak lotura estua du indarkeriarekin (Díaz-Aguado, 2006). Ildo beretik, hainbat ikerketak erakutsi dute genero-rol tradizionalakiko jarrera positiboak (erasotzaileengan zein biktimengan) BGI maila handiagoei lotzen direla (McCloskey eta Lichter, 2003).

Wekerle et al.-ek (2009): harrera-egoitzetan dauden gazteak arrisku handiko taldeztat hartzen dituzte, harremanen disfuntziorako. Jonson-Reid eta Bivens-ek (1999) aurkitu zuten Kaliforniako estatuan harrera-etxeetan zeuden gazteen artean ez zegoela BGI-aren ehuneko handiagorik biztanleria orokorreko gazteekin alderatuta, hala ere, harreman toxiko horietan denbora luzeagoz egoteko joera erakutsi zuten. Ildo beretik, Colorado-Yohar et al. (2012) bi sexueta ia 2.000 pertsona autoktonok eta etorkinek (latinoamerikarrak eta marokoarrak) osatutako laginean ez zuten alderik aurkitu mutil eta nesken arteko bikote-indarkeriako tasetan. Wekerle et al.-ek (2009), bestalde, azterlan bat egin zuten 426 gazterekin, babes-zerbitzuetako gazteen artean, haurren abusu emozionalaren eta BGI-ren arteko harremanari buruz. Horren arabera, mutilen %44ak erantzun zuen bikotekidearekin indarkeriazko jokabideak izan zituela, eta %49ak pairatu zituela. Neskek, berriz, %67ak jazarri zela, eta %63ak indarkeria jasan zuela. Indarkeria motari dagokionez, bi sexuek aipatzen zuten mota psikologikoa fisikoa baino handiagoa zela. Beste ikerketa batzuek trauma osteko estresa, haserrea, depresioa eta indarkeriazko egoerak ikusi izana lotzen dituzte perpretazioarekin (Faulkner et al., 2014).

2.3.2.Prebentzioa

BGI-ari aurrea hartzeko, garapen komunitarioan oinarritu behar da, neskek eta mutilek gizartean duten berdintasunezko tokiarekiko jarrera, balio eta portaeretan aldaketak egon daitezen. Prebentziozko interbentzioak kontzeptualizatzeko eta antolatzeko orduan, hiru jarduketa-maila bereizi behar dira, saihestu nahi den fenomeno dagoen etaparen eta xede den populazioaren arabera. (1) Lehen mailako prebentzioa (edozein markagailu edo adierazle identifikatu aurretik inplementatutako jarduerak), (2) bigarren mailako prebentzioa (biztanlerian arrisku-markatzaileak daudela identifikatu ondoren egindako esku-hartzeak), eta (3) hirugarren mailako prebentzioa (arazoaren eta haren ondorioen hedapena eta ebaluazioa geldiarazteko esku-hartzeak) (Morales eta Costa, 2001) (Ikus Taula 2).

2. Taula *Prebentzio-mailak eta horien ezaugarriak. Iturria: (Morales eta Costa (2001). Norberak moldatua.*

	LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA	BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA	HIRUGARREN MAILAKO PREBENTZIOA
XEDE POPULAZIOA	Biztanleria orokorra	Arrisku handiko biztanleria	Biktimak
HELBURUAK	Kasu berrien intzidentzia murriztea	Iraupena eta larritasuna murriztea (prebalentziari eragiten diona).	Larritasuna eta ondorioak murriztea.
PROZEDURAK	1. Arrisku faktoreak ezabatzea. 2.Osasuna eta biztanleria orokorraren eskumena sustatzea.	1. Atxiloketa eta esku-hartze goiztiarra 2.Arrisku-faktoreak babesteko eta murrizteko faktoreak sustatzea arrisku handiko populazioan.	1. Biktimen eta haien inguruaren tratamendua. 2. Eragindako ondorioen larritasuna birgaitzea eta murriztea.

Vizcarra et al. (2013) esanetan; BGI prebenitzeko esku-hartze programa gehienak, lehen eta bigarren mailako prebentziora bideratuta daude. Lehenengoen helburua indarkeria ez agertzea da, adibidez, ikastetxe bateko biztanle guztiei zuzendutako esku-hartzeen bidez, informazioa emanez edo arrisku-faktoreei buruz sentsibilizatuz. Bigarren mailako prebentzio-programak egoera ahulean dauden edo arrisku handiko pertsonen zerbitzuak ematera bideratuta daude, ezagunak edo susmagarriak diren arrisku faktoreak murriztuz, arazoaren intzidentzia jaisteko asmoz. Programa horiek indarkeriari aurre egiteko diseinatuta daude, gertatu denean, eta lorpen-adierazleak dira biktimak indarkeria-harremana uztea edo erasotzaileak eraso gelditzea (Vizcarra et al, 2013). Prebentzio-programa gehienak Bigarren Hezkuntzan edo unibertsitateko lehen urteetan ezarri dira, eskola-curriculumaren barruan, eta gutxi dira testuinguru akademikotik kanpo ezarritako programak (Wolfe et al., 2003).

MacGowan-ek (1997) azaltzen du, BGI prebenitzeko programa askoren helburu nagusia informazioa ematea izan ohi dela, hala ere, jokabide-aldaketa bat emateko aukera ez da oso probablea, komunikaziorako, negoziatorako eta arazoak ebazteko trebetasunak garatzea barne hartzen ez bada, eta horiek sistematikoki eta sendotasunez txertatu behar dira, egungo edo etorkizuneko indarkeriari erantzun alternatiboak emateko. Rosenbaum eta Leisring-ek (2001) iradokitzen dute bigarren mailako prebentzio-programak indarkeriaren ondorio negatibo edo kaltegarrietan oinarritu beharko liratekeela, erasotzaileek zaila baitute jokabide horiek epe luzean izan ditzaketen ondorioak aurreikustea. Gonzalez eta Santana-k (2001) programen arrakastarako egindako gomendio bat potentzialtasunak azpimarratzea da, eta ez arriskuak, gazteen motibazioa gutxituko duen ezkortasun-giroa saihesteko.

3. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

Ikerketa lan honen hipotesiak hauek dira, BGI-aren inpaktua identifikatzeko helburuarekin.

1. Hipotesia: Indarkeria (perpetrazioa / biktimizazioa) emozionalak ez du erlaziorik sexuarekin.
2. Hipotesia: Bikote gazteen harremanetako indarkeria altuagoa da gazte-helduagoetan gaztetxoenetan baino.
3. Hipotesia: Bikote gazteen harremanetako indarkeria altuagoa da tutelatuen artean, inoiz tutelapean egon ez diren gazteekin konparatuz.

Bestetik, hurrengo hipotesiak burutu dira BGI-rekin erlazonatuta dauden faktoreak aztertzeko.

4. Hipotesia: indarkeriak erlazio positiboa du, sexismo fenomenoarekin eta erlazio negatiboa autoestimarekin.
5. Hipotesia: bikote harremana luzea bada, indarkeria altuagoa izango da.

4. METODOLOGIA

4.1. Ikerketaren diseinua

Ikerketa kuantitatiboaren barruko diseinu deskribatzaile eta korrelaziozko zeharkako ikerketa jarraitu da.

4.2. Partaideak

Ikerketa hau 403 parte-hartzailek osatu dute. Horien okupazioari dagokionez, %17.9ak (n=72) lan egiten du, % 50.1ak (n=202) ikasten du, %28.8ak (n=116) biak egiten ditu eta %3.2ak (n=13) une honetan ez du aurrekoetako bakar bat ere egiten. Parte-hartzaile horien ikasketa-maila honela banatu da: lehen mailako ikasketak %2.2 (n=9) eta bigarren mailakoak %19.4 (n=78), maila ertaineko %5.2 (n=21) eta goi-mailako %11.2 (n=45) prestakuntza profesionala eta unibertsitate-gradua %62 (n=250). Erabilitako laginaren %60a (n=242) bizkaitarra izan da, %10.4a (n=42) Gipuzkoakoa, %8.4a (n=34) Arabakoa, %16.9a (n=68) Espainiakoa eta %4.2a (n=17) Espainiatik kanpokoa. Emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan da (%74.2 (n=299) emakumeak; %24.8 (n=100) gizonak eta beste batzuk %1 (n=4). Parte hartu dutenen batez besteko adina 22.38 izan da, eta gutxienez 18 eta gehienez 30 urte izan dituzte. Noizbait tutelatua izan diren galdetuta %19.9ak (n=80) baietz erantzun du, eta %80.1ak (n=323) ezetz.

4.3. Tresnak

Erabilitako tresnen aurretik *ad hoc* bat egin da laginaren egoera soziodemografikoa identifikatzeko, horretarako horrelako galdera egin dira: *adin nagusikoa zara? Tutelatua*

zaude edo egon zara inoiz? Sexua, adina, bizilekua, Lan edo ikasi egiten duzu? Ikasketa maila, Bikotekidea duzu edo izan duzu? Eta bikote harremanaren iraupena.

Conflict in Adolescent Dating Relationships Inventory (CADRI, Wolfe et al., 2001). Fernández-Fuertes et al.,-ek (2006) Espainiako egokitzapena egin zuten. Jatorrizko eskalak 70 item zituen, eta bikotekidearen aurkako indarkeriazko jokabideak eta biktimizazio-esperientziak ebaluatzen ditu. Kasu honetan, CADRI-ren Espainiako bertsioaren 3 azpieskala (hitzeko-erlazionala, emozionala eta fisikoa) erabiltzen dira, 34 itemekin. Bikotearen aurkako indarkeriazko jokabideak (17 item) eta biktimizazioa (17 item) ebaluatzen dira. Galdetegia lau aukeratako Likert motakoa da (gutxienekoa = 0 eta gehienekoa = 3), 0 “inoiz ez” (hori ez da inoiz gertatu gure harremanean); 1, “gutxitan” (behin edo bitan bakarrik gertatu da); 2, kategoriak “batzuetan” adierazten du (3 eta 5 aldiz bitartean gertatu da) eta 3, kategoriari erreferentzia egiten dio “maiz” gertatutakoari (6 aldiz edo gehiagotan gertatu da). Azpieskala horiek 6 faktoretan biltzen dira: indarkeria erlazionala (3 item), indarkeria hitzeko-emozionala (10 item), indarkeria fisikoa (4 item), biktimizazio erlazionala (3 item), biktimizazio hitz-emozionala (10 item) eta biktimizazio fisikoa (4 item). Eskalaren fidagarritasun totala 0.93 da, perpetrazioa .83 eta biktimizazio .93. Administrazio denbora 10-12 minutukoa da.

Nerabeentzako Ingurugiro Sexismoaren Inbentarioa (ISA-Adolescentes, Glick eta Fiske (1996); Lemus et al. (2008) Espainiako egokitzapena egin zuten. 20 itemeko eskala, 6 aukerako Likert motako erantzunekin (1 = Ez nago batere ados, 2 = Ez nago oso ados, 3 = Pixka bat desados, 4 = Pixka bat ados, 5 = Nahiko ados eta 6 = Guztiz ados). Eskalak sexismoa anbibalentea (SA) bi faktoretan neurtzen du: etsaitasunezko sexismoa⁴ (sexismo klasikoa neurtzen duten 10 item) eta sexismo onbera⁵ (emakumeenganako jarrera sexistak neurtzen dituzten 10 item, modu estereotipatuan eta rol jakin batzuetara mugatuta aztertzen dituen aldetik). Faktore bakoitzak 3 dimentsio ditu. Sexismo etsai paternalismoa (4 item), sexismo etsai generoa bereiztea (3 item), sexismo etsai sexualitatea (3 item), sexismo onbera edo paternalismoa (4 item), sexismo onbera edo genero-bereizketa (3 item) eta sexismo onbera edo sexualitatea (3 item). Ikerketa honetan eskalaren guztira eman duen fidagarritasuna (alpha koefiziente) .87 izan da. Aldiz, etsaitasunezkoa .83 eta onbera .77 izan da. Administrazio denbora 10 minutukoa da.

⁴ Etsaitasunezko sexismoa; erderaz “*sexismo hostile*” bezala ezagutzen dena da.

⁵ Sexismo onbera; erderaz “*sexismo benebolente*” bezala ezagutzen dena da.

Autoestima eskala, *Rosenberg-ek* garatu zuen (1965) eta Echeburua-k (1995) gaztelaniara itzuli zuen. Nerabeen autoestimua neurtzeko gehien erabiltzen denetako bat da. Pertsonak bere buruaz dituen sentimenduei buruzko 10 baieztapenek osatzen dute, 5 positiboki bideratuak eta 5 negatiboki. Likert motako eskala honetan, parte-hartzaileak lau erantzun posibleetatik bakarra aukeratu behar du (1 = Oso ados; 2 = ados; 3 = desados; 4 = Oso desados) 10 baieztapenetako bakoitzari erantzuteko. Azken puntuazioa 10 eta 40 puntu bitartekoa izan daiteke. 25 puntu baino gutxiago lortuz gero, "autoestimu baxu" gisa sailkatuko da. Puntuazioa 26 eta 29 puntu bitartekoa bada, ez dago autoestimu-arazo larririk, baina komeni da hobetzea, eta "autoestimu ertain" gisa sailkatzen da. Eta, azkenik, puntuazioa 30 edo handiagoa bada, "Autoestimu handi edo normal" gisa sailkatuko da. Fidagarritasuna eskala honetan .60 izan da. Administrazio denbora 5-7 minutukoa da.

4.4. Prozedura

Egindako galdetegiaren bidez lortu diren emaitzak eta lortutako datuak baimenarekin erabili dira, eta sustapen- eta hedapen-helburu eskusiborako, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko 2016/679 (EB) Erreklamendu Orokorrean xedatutakoa aintzakotzat hartuz. Hedatu den galdetegia, "Google Forms" bidez sortu da (II. eranskina), eta edozein unetan erantzuteko aukera ematen zuen. Galdetegiko galderei behar bezala erantzuteko jarraibideak eman ziren, bai eta erantzunen konfidentzialtasunari eta baliozkotasunari buruzko bermeak ere, eta zintzotasunez erantzuteko azpimarratu zen. Halaber, jakinarazi boluntarioak zela.

Hasieratik, ikerketa honek tresna metodologikoa unibertso zabal bati aplikatzea izan du ipar. Beraz, galdetegiaren sustapenerako, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (BHF) Gizarte Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleei pasatu zaie, eta honen hedapena eskatu da, kontaktua kate-teknikaren bidez egin da (Taylor eta Bogdan, 1986). Horrez gain, sare sozialen bidez zabaldu eta hedatu da, izan ere, biztanleriaren ehuneko handi batek bizi izan dituen egoerak aztertzeke asmoa du. Horrez gain, egoitza harrera baten lan egin izanak, konkretuki tutelatuta egon diren gazteenganako interesa sortu dit, eta haien artean zabaldu dut "elur bola" metodoarekin.

Galdetegia egin ondoren, datu batzuk galdu dira, alde batetik, erantzun duen pertsona batzuk adingabeak izan direlako, eta bestetik, betetako galdetegia erabiltzeko baimena ez dutelako eman. Horrez gain, haien erabakia errespetatzeko, galderak erantzuteko askatasun osoa izan dute, eta ez dute derrigortasunik izan galdera guztiak nahitaez erantzuteko, beraz, jasotako erantzun guztiak guztiz borondatezkoak izan dira,

baina horrek, erantzun batzuk bidean galtzea eragin du. Gainera, erabilitako tresnak kontuan harturik, 30 urtetik gorako lagina baztertzea erabaki da, beraz guztira 403 pertsonakoa izan da lagina.

4.5. Datuen analisisia

Ikerketa honetan lortutako datuak hainbat estatistika-teknikaren bidez aztertu dira (Forms, Excel, SPSS), abantailak baitituzte prozedura-azterlan mota horietan, gai bereko beste lan batzuetan ikusi izan den bezala. Horrela, datuak kodetu, matrize batera transferitu, fitxategi batean gorde eta erroreak leundu ondoren, Windowserako SPSS b.26 (SPSS, NY, Chicago, IL) analisi estatistikorako programan aztertu dira.

Hasteko normaltasun probak egin dira. Kolmogorov-Smirnoven probak, emaitzak ez-parametrikokoak direla ikusarazi du, hala ere, asimetria eta kurtosia eta laginaren tamaina kontuan hartuz, datu horien azterketan parametrikoen bidez burutu dira. Beraz, analisi deskribatzaileak egin dira, baita t-studen probak ere (desberdintasun esanguratsuak kalkulatzeko) eta dcohen (psycometrica webaren bidez neurtu da) tamainuaren efektua kalkulatzeko. Korrelaziozko analisiak egin dira ere (aldagaien arteko erlazioak kalkulatzeko). Azkenik, ANOVA proba egin da (desberdintasun esanguratsuak kalkulatzeko aldagai independenteetan bi kategoria baino gehiago zeudelako).

5. EMAITZAK⁶

5.1. Indarkeria motak bikote gazteen harremanetako indarkerian eta sexua.

Perpetrazioaren kasuan ez da esanguratsua izan sexua indarkeria motekin (erlazionala, emozionala eta fisikoa) (III eranskineko, 3. taula).

Bestalde, 4. taulan, biktimizazio erlazionalak [$t=2.22$, $p<.027$, $d_{cohen}=-.26$] desberdintasun esanguratsuak azalarazi ditu, efektu tamainua txikia izanda. Mutilak neskak baino batazbesteko altuagoarekin ($B=3.84$ vs $B=3.45$). Patroia errepikatzen da biktimizazio fisikoan ere, estadistikoki desberdintasun adierazgarriak azalarazi ditu sexuarekin, efektu tamainua txikia izanda [$t= -2.80$, $p<.005$, $d_{cohen}=.33$]. Mutilak neskak baino bataz besteko altuagoarekin ($B= 4.76$ vs $B= 4.28$). Aldiz, emozionalean ez da esanguratsua izan.

⁶ Datu esanguratsurik jaso ez duten taulak eranskinetan jarri ditut, espazioa aurrezte aldera (III. eranskina).

4. Taula *Sexuaren deskribatzaileak eta indarkeriaren biktimizazioa.*

BIKTIMIZAZIOA	<i>n</i>	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Biktimizazio erlazionala						
Neska	291	3.45	1.40	-2.22	.027	-.26
Mutila	98	3.85	1.81			
Biktimizazio emozionala						
Neska	291	14.41	5.46	-1.26	.208	
Mutila	98	15.24	6.28			
Biktimizazio Fisiko						
Neska	292	4.28	1.22	-2.80	.005	-.33
Mutila	98	4.76	2.10			
Biktimizazio Totala						
Neska	291	22.14	4.40	-1.861	.064	
Mutila	98	23.85	9.23			

p<.001***; *p*<.01**; *p*<.05*

Bestalde, 5 taulan ikusi daiteke, sexismoa esanguratsua dela sexuarekin; etsaitsunezkoan [*t*=-6.87, *p*<.001, *d*_{cohen}=.79] tamainu efektua ertain-altua izan da eta onberan [*t*=-4.96, *p*<.001, *d*_{cohen}=.57] ertaina. Izan ere, bi sexismo motetan, hau da, etsaitsunezkoan (*B*= 16.72 vs 22.01) eta onberan (*B*= 19.84 vs *B*= 24.11) batz besteko altuagoa dute mutilek neskek baino.

5. Taula *Sexuaren deskribatzaileak eta sexismoa.*

SEXISMOA	<i>n</i>	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Etsaitasunezko sexismoa						
Neska	297	16.72	5.94	-6.87	.001	-0.79
Mutila	100	22.01	8.45			
Sexismo onbera						
Neska	299	19.84	6.90	-4.96	.001	-0.57
Mutila	100	24.11	8.96			

p<.001***; *p*<.01**; *p*<.05*

5.2. Indarkeria bikote gazteen harremanetan eta adina.

6. Taulan, ikus daiteke adina esanguratsua dela indarkeria eragitearekin, [*t*=2.08, *p*<.038, *d*_{cohen} =-.21], 18-22 urtekoak (*B*= 21.03) batz besteko totala baxuagoa dute 23-30 urteko gazteek baino (*B*=21.97), tamainuaren efektua txikia izanda. Batez ere, indarkeria emozionalean eman dira datu esanguratsuenak [*t*=-2.537, *p*<.012, *d*_{cohen} =-.26] gazte heldueen batz bestekoa altuagoa da (*B*=14.66) gaztetxoena baino (*B*=13.69).

6. Taula *Indarkeria moten perpetrazioa gazte tutelatuen eta ez-tutelatuen artean*

PERPETRAZIOA	<i>n</i>	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>t</i>	<i>p</i>	<i>d</i>
Indarkeria erlazionala						
18-22 urte	214	3.13	.52	-.466	.641	
23-30 urte	177	3.15	.60			
Indarkeria emozionala						
18-22 urte	215	13.69	3.65	-2.537	.012	-0.26
23-30 urte	177	14.66	3.92			
Indarkeria Fisikoa						
18-22 urte	215	4.20	.86	.503	.615	
23-30 urte	177	4.16	.72			
Indarkeria Totala						
18-22 urte	214	21.03	4.35	-2.08	.038	-0.21
23-30 urte	177	21.98	4.65			

p<.001***; *p*<.01**; *p*<.05*

Aldiz 7. Taulan, ikusi daiteke, biktimizazioak eta adinak ez dutela desberdintasun esanguratsurik erakutsi (III eranskineko 7. taula). Bestalde, sexua eta adinaren interakzioan ez dira desberdintasunik eman perpetrazio eta biktimizazio totaletan ezta motetan ere.

5.3. Indarkeria moten perpetrazioa eta biktimizazioa gazte tutelatuen eta ez-tutelatuen artean.

Ikusi daiteke ikerketa honetan ez dagoela estadistikoki datu esanguratsurik mota hauetako indarkeria (erlazionala, emozionala eta fisikoa) gauzatzearen eta noizbait tutoretzapean egon izanaren artean. Ildo berean, joera berbera errepikatzen da biktimizazioan, hau da, ez dagoela desberdintasun adierazgarririk biktimizazioaren eta noizbait tutoretzapean egon izanaren artean (III. eranskineko 8. eta 9. taulak).

5.4. Korrelazioa sexismoaren eta indarkeriaren artean.

Hurrengo 10. taulan ikusi daiteke, etsaitasunezko sexismoak erlazioa positiboa duela indarkeriaren perpetrazioarekin (*e*=.358) eta biktimizazioarekin (*e*=.230). Patroia errepikatzen da sexismo onberan indarkeriarekin (*e*=.226) eta biktimizazioarekin (*e*=.183). Aldiz, biktimizazioak erlazio negatiboa du autoestimuekin. Hala ere, ematen diren erlazioa guztiak ertain-baxuak dira.

10.Taula *Sexismoaren, autoestimaren eta indarkeriaren korrelazioak*

KORRELAZIOA	1	2	3	4	5
1. PERPETRAZIOA	1				
2. BIKTIMIZAZIOA	.586**	1			
3. ETSAITASUNEZKO SEX.	.358**	.230**	1		
4. SEX. ONBERA	.226**	.183**	.654**	1	
5. AUTOESTIMU TOTALA	-.090	-.180**	-.080	-.058	1

p<.001***; *p*<.01**; *p*<.05*

5.5. Indarkeria bikote harremanaren iraupenaren arabera

11. taulan ikusi daiteke, perpetrazioa eta bikotearen iraupenean desberdintasun esanguratsuak daudela, tamainuaren efektu txikiarekin [$F=2.08$, $p<.038$, $\eta^2=.04$]. Perpetraziozko batz besteko altuena iraupen luzeena duten bikote-harremanak izan dute ($B=23.85$) eta baxuena inoiz bikote harremanik izan ez dutenak ($B=18.60$) ikusi daiteke esponentzialki urtez-urte nola igotzen den batzbestekoa. 12. taulan biktimizazioari dagokionez, ikusi daiteke batz besteko altuena 1-3 urte bitarteko iraupena izan duten bikote harremanak izan direla ($B=23.78$), aldiz baxuena, bikoterik izan ez dutenen ondoren ($B=17.92$), 5 urte baino gehiago iraupen dutenak dira ($B=22.03$).

11. Taula. *Indarkeriaren perpetrazioa bikote harremanaren iraupenaren arabera.*

BIKOTE IRAUPENA/ PERPETRAZIOA	<i>n</i>	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>F</i>	<i>p</i>	η^2
Inoiz ez	52	18.60	2.14	9.74	.001	.04
1 baino gutxiago	83	20.80	3.97			
1-3 bitartean.	145	21.94	3.93			
3-5 bitartean	77	22.13	5.12			
5 baino gehiago	34	23.85	6.65			

$p<.001$ ***; $p<.01$ **; $p<.05$ *

12. Taula. *Biktimizazioa bikote harremanaren iraupenaren arabera.*

BIKOTE IRAUPENA/ BIKTIMIZAZIOA	<i>n</i>	<i>B</i>	<i>DT</i>	<i>F</i>	<i>p</i>	η^2
INOIZ EZ	52	17.92	1.78	5.81	.001	.04
1 BAINO GUTXIAGO	83	23.08	8.68			
1-3 BITARTEAN.	146	23.78	8.99			
3-5 BITARTEAN	78	23.05	6.91			
5 BAINO GEHIAGO	34	22.03	6.53			

$p<.001$ ***; $p<.01$ **; $p<.05$ *

6. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Planteatutako lehen hipotesia berretsi egin da: indarkeria (perpetrazioa/ biktimizazioa) emozionalak ez du erlazorik sexuarekin. Hainbat autorek azpimarratu dute BGI-a, sexuei dagokienez, noranzko bikoia dela, hau da, indarkeria aldebikoa dela eta bi subjektuak izan daitezkeela biktima edo jazarle: ni hauetan oinarritu naiz hipotesi hau garatzeko. Nahiz eta perpetrazioko datuak ez diren izan esanguratsuak, biktimizazioan, indarkeria erlazionalean eta fisikoan zehazki, batez besteko altuagoa dutenak mutiak izan dira, hau da, biktimizazio altuagoa erakutsi dute mutilek neskek baino bi indarkeria mota

horietan. Hau ez dator bat, Calvete et al., (2018) diotenarekin, izan ere, egileek ikusi dute neskek mutilak baino biktimizazio-maila handiagoak izan ohi dituztela. Baina eztabaida egoten jarraitzen du, izan ere, ez da adostasunik lortzen biktimizatuen zein jazarleen sexuan. Badaude indarkeria burutzen dutenak mutilak direla diotenak (Makepeace, 1981) eta neskek direla diotenak ((Fernández-Fuertes eta Fuertes, 2010).baita biktimizat soilik neskek dituztenak (Rodriguez, 2015). Hala ere, autore gehienek ondorioztatu dute; neskek zein mutilak erasotzaileak eta biktimak izan daitezkeela (Rubio-Garay et al., 2017). Sexuarekin jarraituz, mutilak bi sexismo motetan neskek baino batazbesteko altuagoa izan dute, horrek esan nahi du, ikerketa honetako mutilak neskek baino sexistagoak direla. Bat dator Glick eta Fiske (1996) esandakoarekin, gizonezkoek, emakumeekin alderatuta, etsaitasunezko sexismo altuagoa dutela esaten baitute.

Bigarren hipotesiari dagokionez, BGI, gazte helduetan gazteetan baino altuagoa dela izan da, eta baieztatu da baina soilik perpetrazioan. Hipotesi hau bat dator autore batzuk diotenarekin; hala nola Schwartz et al., (2004), BGI-aren ehuneko handi bat psikologikoa izaten dela fisikoa baino gehiago ondorioztatu zuten, batez ere harremanen hasieran, eta denborarekin fisikoa bihurtu daitekeela, indarkeria maila esponentzialki areagotuz. Perpetrazioan baieztatu den hipotesi honetan ikusi dezakegu, adinak baduela zerikusi nabarmena indarkeria gauzatzearekin, izan ere, batazbesteko altuagoa adierazi dute nagusiagoek gaztetxoenek baino. Baieztapen hau bat dator Furman eta Shaffer-ek (2003) esaten dutenarekin, izan ere, hauen aburuz, lehen harremanek etorkizuneko harremanen kontzeptua baldintzatu dezakete. Beraz, eteten ez bada, ezin izango dira jokaera horrek zuzendu eta etorkizunean berriz agertzeko aukera areagotuko da.

Hirugarren hipotesiari dagokionez, ez da datu esanguratsurik aurkitu noizbait tutelapean egon diren gazteen eta egon ez direnen artean. Hau ez dator bat autore gehienek esan dutenarekin, izan ere, gehienek, Wekerle et al. (2009) besteak beste harrera-egoitzetan dauden gazteak arrisku handiko taldetzat hartzen dituzte, harremanen disfuncziorako. Izan ere, trauma-osteko estresa, haserrea, depresioa eta indarkeria-egoerak BGI-rekin erlazionatu dituzten ikerketak daude, eta honek arrisku faktoreak izan daitezke BGI bezalako fenomenoan (González ,2011). Hala ere, gutxi badira ere, badaude hipotesi hau bete ez zaien beste ikerketa batzuk, adibidez; Jonson-Reid eta Bivens-ek (1999) aurkitu zuten Kaliforniako estatuan babesean zeuden gazteen artean ez zegoela BGI-aren ehuneko handiagorik biztanleria orokorreko gazteekin alderatuta.

Bestalde, laugarren hipotesiarekin kontrastatu nahi izan dena baieztatu egin da jasotako emaitzen arabera; hau da, indarkeriak erlazio positiboa du sexismo fenomenoarekin eta erlazio negatiboa autoestimarekin. Hipotesi honetan baieztatu da etsaitasunezko sexismoak erlazioa positiboa duela perpetrazio indarkeriarekin eta biktimizazioarekin, gainera, patroi berbera errepikatu da sexismo onberan, erlazioa izanik bai perpetrazio indarkeriarekin bai biktimizazioarekin. Emaitza horiek bat datoz hainbat ikerketatan aurkitutakoekin, hala nola Archer-en (2006) ikerketarekin, non lortutako emaitzek berresten dute gizarte sexistenek erakusten dituztela emakumeenganako indarkeriaren indize altuenak. Izan ere, Diaz-Aguado-ren (2006) arabera, izaeragatik, sexismoak lotura zuzena duela indarkeriarekin. Autoestimaren kasuan, indarkeriarekin erlazio negatiboa duela egiaztatu da. Hau bat dator autore batzuek egindako ikerketen emaitzekin, hala nola, Aguilar eta Nightingale-k (1994) ondorioztatu dute, indarkeriaren (fisikoa, erlazionala eta emozionala) biktimek autoestima baxuagoa zutela horrelako esperientziarik jasan ez dutenek baino. Gainera, Katz et al., (1997) ondorioztatu zuten autoestimu baxu hori eta erruduntasun atribuzioak bikotekideei barkatzeko asmoarekin korrelatu gisa agertzen direla.

Azken hipotesi hau baieztatu egin da, izan ere, bikote harremanak gero eta iraupen luzeagoa izan, indarkeriaren perpetrazioa ere altuagoa da. Hau bat dator Sears et al. (2007) diotenarekin, indarkeria jokabide horietako batzuk normaltzat jotzen dituzte nerabe askok, eta bikote gazteen harremanetan onartzen dituzte, bikotekidearekiko maitasunarekin eta interesarekin nahasten baitituzte, baina gero eta maizago gerta daitezke. Ildo horretan, jakinarazi da estatistikoki harreman esanguratsua dagoela bikote harremanaren denboraren eta nerabe eta heldu gazteen artean gertatzen diren tratu txarren maiztasunaren artean; horrek esan nahi du, harremanaren dinamikan ezarri ondoren, jokabide horiek gero eta ohitura gaizto ohikoagoa bihurtu daitezkeela. Horrela, bikote harremana gero eta luzeagoa izan, eta zenbat eta kontaktu eta sexu-intimitate handiagoa izan, orduan eta handiagoa da bikotearen aurkako eraso arriskua, batez ere psikologikoa (Blázquez-Alonso et al., 2012). Aurrekoarekin lotuta eta hipotesi honen emaitzarekin bat, harreman sentimentaleko konpromiso edo seriotasun-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gatazka-arrisku handiagoa dago, hau da, bikote "finkatu" batean indarkeria gertaerak gertagarriagoak dira harreman informaletan baino; izan ere, harremana gehiago konprometitzeak indarkeria arriskua areagotu dezake, inplikazio handiagoa, emozio biziagoak eta gatazka sortzeko aukera gehiago ematen baititu (Cleveland et al., 2003).

Autoestimuari dagokionez, ez da emaitz esanguratsurik lortu, ikerketa honetako limitazio bat izan da. Izan ere, autoestimuaekin erlazionatutako datuek ez dute fidagarritasun alturik erakutsi (60). Eskala hau Rosenberg-ek garatu zuen 1965-ean eta izan daiteke gaur eguneko ikerketa baterako zaharkitua egotea, beraz etorkizuneko ikerketetan eskala berriago bat erabiltzea garrantzitsua izango litzateke.

Ikerketa honi buruz, galdetegiko erantzunak jasotzeko "elur-bola" metodologia erabiltzean, aukera ona izan da erantzunak lortzeko, baina parte-hartzaileen kontrola galtzea eragin du. Horrez gain, gaur egun, sare sozialen erabilera hain sarria denez, uste dut hurrengo ikerketetarako BGI *online* aztertzea interesgarria izan daitekeela, izan ere, nerabezaroan eta gaztaroan komunikaziorako tresna garrantzitsuenetako bat dira, eta beraien artean egon daitezkeen tendentzien adierazle nagusienetako bat. Beraz, indarkeria egungo testuingurura moldatzen da, eta teknologia berrien agerpenarekin hauetara ere egokitu da, hala nola: teknologiaren erabileraren gaineko kontrola (sare sozialetan norekin harremantzen den erabakitzea kasu), txantaia eta jelsia, argitalpen umiliagarriak egitea, mehatxuak, identitatea ordeztea...

Etorkizunera begira, garrantzitsua iruditzen zait ikerketa honen emaitza esanguratsuak kontuan hartzea, hala nola sexismoa, adina eta beste arrisku-faktore batzuk (klinikoak zein interpersonalak), hurrengo prebentzio-programak diseinatzeko, eta arrisku faktore diren horrek, babes faktore bihurtzeko. Horrela, BGIa edo hori erraztu dezaketen arrisku-faktoreak murrizteko. Bestalde, prebentzio-programen bilaketan ikusi ahal izan dudanez, esku-hartze gehienak hezkuntza formalaren esparruan izaten dira. Hain zuzen ere, gizarte hezitzaileen arlotik, uste dut garrantzitsua izango litzatekeela gertakari hori hezkuntza ez formalean ere landu ahal izatea. Izan ere, hezkuntza ez formala, formala heltzen ez den lekuetara heltzen da; irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza eskola eremutik kanpo izan eta asmo hezigarria duten prozesua delako. Horrela, helburua elkarbizitza, harreman horizontalak, errespetua, askatasuna, berdintasuna eta aniztasunaren aldeko jarrerak bultzatzen dituen aisialdia sustatzea da. Halaber, hezkuntza ez formalak pertsonak gaitu nahi ditu gizartean kritikoagoak, solidarioagoak eta parte-hartzaileagoak izan daitezen. Finean, aldaketa soziala bultzatzea helburu duelako.

7. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

Etika profesionalari eta datuen babesari dagokienez, nabarmendu behar da kanon etiko guztiak bete ditudala ikerketa-lan osoan. Era berean, esan behar da datuak babesteko

protokoloa jarraitu dudala eta uneoro kontuan izan dudala lagina biltzeko kode deontologikoa, erabat anonimoa eta pribatua izan dena. Azkenik, esan behar da profesionaltasuna izan dudala beti irizpidetzat, izan ere, gizarte hezitzaile bezala etika hau lan egiten eta esku-hartzen dugun arlo guztietan jarraitu behar dugula deritzot, erabiltzaileak babestu behar ditugula uneoro.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguilar, R. J. eta Nightingale, N. N. (1994). El impacto de experiencias específicas de maltrato en la autoestima de las mujeres maltratadas. *Revista de Violencia Familiar*, 9(1), 35–45. <https://doi.org/10.1007/BF01531967>
- Alberdi, I. eta Matas, N. (2002). *Violencia Doméstica. Informe Sobre los Malos Tratos a Mujeres en España*. Colección Estudios Sociales.
- Archer, J. (2006). Testosterone and human aggression: an evaluation of the challenge hypothesis. *Neuroscience y Biobehavioral Reviews*, 30(3), 319-345. <http://dx.doi.org/10.1016/j.neubiorev.2004.12.007>
- Arnoso, A., Ibabe, I., Arnoso, M., eta Elgorriaga, E. (2017). El sexismo como predictor de la violencia de pareja en un contexto multicultural. *Anuario de Psicología Jurídica*, 27(1), 9-20. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=315051754002>
- Barnett, O. W., Miller-Perrin, C. L. eta Perrin, R. A. (1997). *Family Violence Across the Lifespan*. Sage.
- Bell, K. eta Naugle, A. (2007). Effects of Social Desirability on Students' Self-Reporting of Partner Abuse Perpetration and Victimization. *Violence and Victims*, 22, 243-256.
- Blázquez-Alonso, M., Moreno-Manso, J. M., Sánchez, M. E. G. B. eta Guerrero-Barona, E. (2012). La competencia emocional como recurso inhibitorio para la perpetración del maltrato psicológico en la pareja. *Salud Mental*, 35(4), 287-296.
- Calvete, E., Fernández-González, L., Orue, I. eta Little, T. D. (2018). Exposure to family violence and dating violence perpetration in adolescents: Potential cognitive and emotional mechanisms. *Psychology of Violence*, 8(1), 67-75. <http://dx.doi.org/10.1037/vio0000076>
- Capaldí, D. M., eta Crosby, L. (1997). Observed and reported psychological and physical aggression in young, at-risk couples. *Social Development* 6(2), 184-206. <https://doi.org/10.1111/j.1467-9507.1997.tb00098.x>
- Carrascosa, L., Cava, M. J. eta Buelga, S. (2016). Ajuste psicosocial en adolescentes víctimas frecuentes y víctimas ocasionales de violencia de pareja. *Terapia Psicológica*, 34(2), 93-102.
- Castaños, A. (2016). *¿Se cura la violencia? La búsqueda de la des-violencia*. Ediciones Beta III Milenio, S.L.
- Cava, M. J., Buelga, S. eta Carrascosa, L. (2015). Violencia física y psicológica ejercida en parejas adolescentes: Relación con el autoconcepto y la violencia entre iguales. *Psicología Conductual*, 23(3), 429-446.
- Celis-Sauce, A. eta Rojas-Solís, J. L. (2015). Violencia en el noviazgo desde la perspectiva de varones adolescentes. *Informes Psicológicos*, 15(1), 83-104.
- Chase, K. A., Treboux, D. eta O'Leary, K. D. (2002). Características de la violencia en el noviazgo de adolescentes de alto riesgo. *Journal of Interpersonal Violence*, 17(1), 33–49. <http://dx.doi.org/10.1177/0886260502017001003>

- Cleveland, H. H., Herrera, V. M. eta Stuewig, J. (2003). Varones abusivos y mujeres abusadas en relaciones de adolescentes: similitud y disimilitud de factores de riesgo y el papel de la seriedad en las relaciones. *Journal of Family Violence* 18, 325–339 (2003). <https://doi.org/10.1023/A:1026297515314>
- Colorado-Yohar, S., Tormo, M. J., Salmerón, D., Dios, S., Ballesta, M., eta Navarro, C. (2012). Violence reported by the immigrant population is high as compared with the native population in southeast Spain. *Journal of interpersonal violence*, 27(16), 3322–3340. <https://doi.org/10.1177/0886260512441260>
- Colás Bravo, P. eta Villaciervos Moreno, P. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista De Investigación Educativa*, 25(1), 35-38. <https://revistas.um.es/rie/article/view/96421>
- Connolly, J., Nocentini, A., Menesini, E., Pepler, D., Craig, W. eta Williams, T. S. (2010). Adolescent dating aggression in Canada and Italy: A cross-national comparison. *International Journal of Behavioral Development*, 34(1), 98-105.
- Cornelius, T. L. eta Resseguie, N. (2007). Programas de prevención primaria y secundaria para la violencia en el noviazgo: una revisión de la literatura. *Agresión y Comportamiento Violento*, 12 (3), 364–375. <https://doi.org/10.1016/j.avb.2006.09.006>
- De la Villa Moral, M., García, A., Cuetos, G. eta Sirvent, C. (2017). Violencia en el noviazgo, dependencia emocional y autoestima en adolescentes y jóvenes españoles. *Revista Iberoamericana de Psicología y Salud*, 8(2),96-107. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=245153986004>
- Díaz-Aguado, M. J. (2006). *El acoso escolar y la prevención de la violencia desde la familia*. Consejería de Familia y Asuntos Sociales.
- Dye, M. L. eta Eckhardt, C. I. (2000). Anger, irrational beliefs, and dysfunctional attitudes in violent dating relationships. *Violence and victims*, 15(3), 337–350.
- Echeburúa, E. eta Fernández-Montalvo, J. (1997). Tratamiento cognitivo-conductual de hombres violentos en el hogar: un estudio piloto. *Análisis y Modificación de Conducta*, 23(89), 355-384. [10.1016/j.avb.2012.02.002](https://doi.org/10.1016/j.avb.2012.02.002)
- Escartí, A. Musitu, G. eta Gracia, M. D. (1988). *Estereotipos de género y roles sexuales*. Pirámide.
- Faulkner, B., Goldstein, A. L. eta Wekerle, C. (2014). Pathways from childhood maltreatment to emerging adulthood: Investigating trauma-mediated substance use and dating violence outcomes among child protective services-involved youth. *Child Maltreatment*, 19(4), 219-232.
- Fernández-Fuertes, A. eta Fuertes, A. (2010). Physical and psychological aggression in dating relationships of Spanish adolescents: Motives and consequences. *Child Abuse & Neglect*, 34(3), 183–191.
- Follingstad, D. R., Bradley, R. G., Laughlin, J. E. eta Burke, L. (1999). Risk factors and correlates of dating violence: The relevance of examining frequency and severity levels in a college sample. *Violence and Victims*, 14(4), 365-380. <http://dx.doi.org/10.1891/0886-6708.14.4.365>
- Follingstad, D. R., Rutledge, L. L., Berg, B. J., Hause, E. S. eta Polek, D. S. (1990). The role of emotional abuse in physically abusive relationship. *Journal of Family Violence*, 5(2), 107-120. <https://doi.org/10.1007/BF00978514>
- Foshee, V. A., Karriker-Jaffe, K., Reyes, H. L. M., Ennett, S. T., Suchindran, C. eta Bauman, K. E. (2008). What accounts for demographic differences in trajectories of adolescent dating violence? An examination of and contextual mediators. *Journal*

- of *Adolescent Health*, 42(6), 596–604. <http://dx.doi.org/10.1016/j.jadohealth.2007.11.005>
- Furman, W. eta Shaffer, L. (2003). The role of romantic relationships in adolescent development. En P. Florsheim (2003), *Adolescent romantic relations and sexual behavior: Theory, research, and practical implications* (pp. 3-22). Lawrence Erlbaum Associates. <https://goo.gl/3efxcz>
- Gaete, V. (2015). Desarrollo psicosocial del adolescente. *Revista chilena de pediatría*, 86(6), 436-443. <https://dx.doi.org/10.1016/j.rchipe.2015.07.005>
- Galtung, J. (1984). *¡Hay alternativas!: Cuatro caminos hacia la paz y la seguridad*. Tecnos.
- Garaigordobil, L. M. (2000). *Intervención psicológica para adolescentes: un programa para el desarrollo de la personalidad y la educación en derechos humanos*. Pirámide.
- Glick P. eta Fiske S. T. (1996). The Ambivalent Sexism Inventory: Differentiating hostile and benevolent sexism. *Journal of Personality and Social Psychology*, 70(3), 491–512. <http://dx.doi.org/10.1037/0022-3514.70.3.491>
- González, R. eta Santana, J. D. (2001). La violencia en parejas jóvenes. *Psicothema*, 13(1), 127-131. <http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=423>
- González-Lozano, P., Muñoz-Rivas, M. J. eta Graña J. L. (2003). Violencia en las relaciones de pareja en adolescentes y jóvenes: una revisión. *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, 3(3), 23-39.
- González Lozano, M. P. (2011). *Violencia en las relaciones de noviazgo entre jóvenes y adolescentes de la comunidad de Madrid*. [tesis doctoral, Universidad Complutense de Madrid]. Repositorio ELibro.
- González-Ortega, I., Echeburúa, E. eta Corral, P. D. (2008). Variables significativas en las relaciones violentas en parejas jóvenes: una revisión. *Psicología Conductual*, 16(2), 207-225.
- Humphrey, J. eta White J. (2000). Women's vulnerability to sexual assault from adolescence to young adulthood. *Journal of Adolescent Health*. 27(1), 419-424.
- Jennings, L. J., Arcila, M. E., Corless, C., Kamel-Reid, S., Lubin, I. M., Pfeifer, J. eta Nikiforova, M. N. (2017). Guidelines for validation of next-generation sequencing–based oncology panels: a joint consensus recommendation of the Association for Molecular Pathology and College of American Pathologists. *The Journal of Molecular Diagnostics*, 19(3), 341-365.
- Jonson-Reid, M. eta Bivens, L. (1999). Foster youth and dating violence. *Journal of Interpersonal Violence*, 14(12), 49-62. <https://n9.cl/47pza>
- Jouriles, E. N., Garrido, E., Rosenfield, D. eta McDonald, R. (2009). Experiences of psychological and physical aggression in adolescent romantic relationships: Links to psychological distress. *Child Abuse & Neglect*, 33(7), 451-460.
- Katz, J., Street, A. eta Arias, I. (1997). Individual differences in self-appraisals and responses to dating violence scenarios. *Violence and Victims*, 12(3), 265–276.
- Laurie, S.R. (2005). Physical intimacy and sexual coercion among adolescent intimate partners in the philippines. *Journal of Adolescent Research* 20(4), 476-496.
- Little, T. D., Henrich, C. C., Jones, S. M. eta Hawley, P. H. (2003). Disentangling the “whys” from the “whats” of aggressive behaviour. *International Journal of Behavioral Development*, 27(2), 122-133. <https://n9.cl/g33>
- MacGowan, M. (1997). An evaluation of a dating violence prevention program for middle school students. *Violence and Victims*, 12(3), 223-235.

- Magdol, L., Moffitt, T. E., Caspi, A. eta Silva, P. A. (1998). Developmental antecedents of partner abuse: a prospective-longitudinal study. *Journal of Abnormal Psychology*, 107(3), 375-389. [10.1037 // 0021-843x.107.3.375](https://doi.org/10.1037//0021-843x.107.3.375)
- Makepeace, J. M. (1981). Courtship violence among college students. *Family Relations*, 30(1), 97-102. <https://doi.org/10.2307/584242>
- Marroquí, M. eta Cervera, P. (2014). Interiorización de falsos mitos del amor romántico. *Reidocrea*, 3(20),142-146. <https://n9.cl/v1g9q>
- McCloskey, L.A. eta Lichter, E.L. (2003). The contribution of marital violence to adolescent aggression across different relationships. *Journal of Interpersonal Violence*, 18(4), 390-412. <http://dx.doi.org/10.1177/0886260503251179>
- Morales, J. M. eta Costa, M. (2001). Violence prevention in childhood and adolescence. A conceptual and integral approach. *Intervención Psicosocial*, 10 (2), 221-239.
- Moreno, D., Estévez, E., Murgui, S. eta Musitu, G. (2009). Relación entre el clima familiar y el clima escolar: el rol de la empatía, la actitud hacia la autoridad y la conducta violenta en la adolescencia. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 9(1), 123-136. <https://n9.cl/pzx1k>
- Muñoz-Rivas, M., González, M. P. eta Fernández, L. (2016). *Prevenir la violencia en las relaciones de noviazgo*. Pirámide.
- Muñoz-Rivas, M. J., Graña, J. L., O’Leary, K. D. eta González, M. S. (2007). Aggression in adolescent dating relationships: Prevalence, justification and health consequences. *Journal of Adolescent Health*, 40, 298-304. <http://dx.doi.org/10.1016/j.jadohealth.2006.11.137>
- Osasunaren Munduko Erakundea. (2002). *Informe mundial sobre la violencia y la salud*. OPS.
- Ortega, R., Ortega-Rivera, F. J. eta Sánchez, V. (2008). Violencia sexual entre compañeros y violencia en parejas adolescentes. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 8, 63-72. <https://n9.cl/1z7a>
- Oswald, D. L. eta Russell, B. L. (2006). Perceptions of sexual coercion in heterosexual dating relationships: The role of aggressor gender and tactics. *Journal of Sex Research*, 43(1), 87-95. <https://doi.org/10.1080/00224490609552302>
- O’Leary, K. D. eta Slep, A. M. S. (2003). A dyadic longitudinal model of adolescent dating aggression. *Journal of Clinical Child and Adolescent Psychology*, 32(3), 314- 327. [10.1207 / S15374424JCCP3203_01](https://doi.org/10.1207/S15374424JCCP3203_01)
- O’Keefe, M. (1998). Factors mediating the link between witnessing interparental violence and dating violence. *Journal of Family Violence*, 13(1), 39-57.
- Pazos M., Oliva A. eta Hernando Á. (2014). Violence in young and adolescent relationships. *Revista Latinoamericana de Psicología*, 46(3), 148–159.
- Penado M. eta Rodicio-García M. L. (2017). Analysis of self-concept in victims of gender-based violence among adolescents. *Suma Psicológica*, 24(2), 107–114. <https://doi.org/10.1016/j.sumpsi.2017.08.001>
- Pradas, E. eta Perles, F. (2012). Resolución de conflictos de pareja en adolescentes, sexismo y dependencia emocional. Quaderns de psicologia. *International Journal of Psychology*, 14(1), 45-60. <https://n9.cl/hredf>
- Póo, A. M. eta Vizcarra, M. B. (2008). Violencia de pareja en jóvenes universitarios. *Terapia Psicológica*, 26(1), 81-88. <https://n9.cl/im939>
- Riggs, D. S. eta O’Leary, K. D. (1996). Aggression between heterosexual dating partners: An examination of a causal model of courtship aggression. *Journal of Interpersonal Violence*, 11(4), 519-540. <https://n9.cl/cpev>

- Rodríguez, S. (2015). Violencia en parejas jóvenes: Estudio preliminar sobre su prevalencia y motivos. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, (25), 251-275. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=135043709011>
- Rojas, L. (1995). *Las semillas de la violencia*. S.L.U. Espasa Libros.
- Rosenbaum, A. eta Leisring, P. (2001). Programas de intervención grupal para agresores. *Journal of Aggression, Maltreatment & Trauma*, 5(2) 57-71. https://doi.org/10.1300/J146v05n02_05
- Rubio-Garay, F., Carrasco, M. Á., Amor, P. J. eta López-González, M. A. (2015). Factores asociados a la violencia en el noviazgo entre adolescentes: una revisión crítica. *Anuario de Psicología Jurídica*, 25(1), 47-56. <https://n9.cl/q4kdg>
- Rubio-Garay, F., López-González, M. A., Carrasco, M. Á. eta Amor, P. J (2017). La prevalencia de la violencia en el noviazgo: una revisión sistemática. *Papeles del Psicólogo*, 38(2), 135-147. <https://doi.org/10.23923/pap.psicol2017.2831>
- Schumacher, J. A. eta Slep, A. M. S (2004). Actitudes y agresión en las citas: un enfoque de disonancia cognitiva. *Ciencia de la prevención*, 5(4), 231–243. <https://doi.org/10.1023/B:PREV.0000045357.19100.77>
- Schwartz, J. P., Magee, M. M., Griffin, L. D. eta Dupuis, C. W. (2004). Effects of a Group Preventive Intervention on Risk and Protective Factors Related to Dating Violence. *Group Dynamics: Theory, Research, and Practice*, 8(3), 221- 231.
- Sears, H. A., Byers, E. S. eta Price, E. L. (2007). The co-occurrence of adolescent boys' and girls' use of psychologically, physically, and sexually abusive behaviours in their dating relationships. *Journal of Adolescence*, 30(3), 487- 504. <http://dx.doi.org/10.1016/j.adolescence.2006.05.002>
- Sebastián, J., Ortiz, B., Gil, M., Gutiérrez del Arroyo, M., Hernáiz, A. eta Hernández, J. (2010). La Violencia en las Relaciones de Pareja de los Jóvenes. *¿Hacia Dónde Caminamos? Clínica Contemporánea*, 1, 71–83. <https://n9.cl/d97m5>
- Serran, G. eta Firestone, P. (2004). Homicidio de pareja íntima: una revisión de la propiedad masculina y las teorías de autodefensa. *Agresión y Comportamiento Violento*, 9(1), 1-15. [https://doi.org/10.1016/S1359-1789\(02\)00107-6](https://doi.org/10.1016/S1359-1789(02)00107-6)
- Shen, A. C. T., Chiu, M. Y. L. eta Gao, J. X. (2012). Predictors of dating violence among Chinese adolescents: The role of gender-role beliefs and justification of violence. *Journal of Interpersonal Violence*, 27(6), 1066–1089. <http://dx.doi.org/10.1177/0886260511424497>
- Shook, N., Gerrity, D., Jurich, J. y Segrist, A. (2000). Courtship violence among college students: A comparison of verbally and physically abusive couples. *Journal of Family Violence*, 15(1), 1-22.
- Shorey, R. C., Rhatigan, D. L., Fite, P. J. eta Stuart, G. L. (2011). Dating violence victimization and alcohol problems: An examination of the stress-buffering hypothesis for perceived support. *Partner Abuse*, 2(1), 31–45. <http://dx.doi.org/10.1891/1946-6560.2.1.31>
- Soler, L., Paretilla, C., Kirchner, T. eta Forn, M. (2012). Effects of poly-victimization on self-esteem and post-traumatic stress symptoms in Spanish adolescents. *European Child & Adolescent Psychiatry*, 21(11), 645-653. <http://dx.doi.org/10.1007/s00787-012-0301-x>
- Soto-Quevedo, O. A. (2012). The role of ambivalent sexism and transgression of gender stereotype on attribution of blame to female victims of intimate partner violence. *Acta Colombiana de Psicología*, 15(2), 135-148. <https://n9.cl/e7zu>

- Swart, E., Engelbrecht, P., Eloff, I. eta Pettipher, R. (2002). Implementing inclusive education in South Africa: teachers' attitudes and experiences. *Acta Academica*, 34(1), 175-189. <https://hdl.handle.net/10520/EJC15226>
- Taft, C. T., Resick, P. A., Watkins, L. E. eta Panuzio, J. (2009). An Investigation of Posttraumatic Stress Disorder and Depressive Symptomatology among Female Victims of Interpersonal Trauma. *Journal of family violence*, 24(6), 407-415. <https://doi.org/10.1007/s10896-009-9243-6>
- Vagi, K. J., Rothman, E. F., Latzman, N. E., Tharp, A. T., Hall, D. M. eta Breiding, M. J. (2013). Beyond correlates: A review of risk and protective factors for adolescent dating violence perpetration. *Journal of Youth and Adolescence*, 42(4), 633-649. [10.1007 / s10964-013-9907-7](https://doi.org/10.1007/s10964-013-9907-7)
- Van Geel, M., Vedder, P. eta Tanilon, J. (2014). Relationship between peer victimization, cyberbullying, and suicide in children and adolescents: a meta-analysis. *JAMA Pediatrics*, 168(5), 435-442. [10.1001 / jamapediatrics.2013.4143](https://doi.org/10.1001/jamapediatrics.2013.4143)
- Viejo C. (2014). Violencia física en las relaciones sentimentales adolescentes: hacia la comprensión del fenómeno. *Infancia y Aprendizaje*, 37(4), 785-815. <https://doi.org/10.1080/02103702.2014.977110>
- Vizcarra, M. B., Poo, A. M. eta Donoso, T. (2013). Programa educativo para la prevención de la violencia en el noviazgo. *Revista de Psicología*, 22(1), 48-61. [10.5354/0719-0581.2013.27719](https://doi.org/10.5354/0719-0581.2013.27719)
- Vézina, J. eta Hébert, M. (2007). Risk Factors for Victimization in Romantic Relationships of Young Women A Review of Empirical Studies and Implications for Prevention. *Trauma, Violence & Abuse*, 8(1), 33-66. [10.1177 / 1524838006297029](https://doi.org/10.1177/1524838006297029)
- Watson, T. N. (2003). *Issues of intent and injury: A comparative analysis of gender differences in African- American college students' perceptions of dating violenc.* [tesis doctoral, Universidad Estatal de Florida].
- Wekerle, C., Leung E., Wall A.-M., MacMillan H., Boyle M., Trocme N. eta Waechter R. (2009). The contribution of childhood emotional abuse to teen dating violence among child protective services-involved youth. *Child Abuse & Neglect*, 33(1), 45-58. [10.1016 / j.chiabu.2008.12.006](https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2008.12.006)
- Wincentak, K., Connolly, J. eta Card, N. (2017). Violencia en el noviazgo adolescente: una revisión metaanalítica de las tasas de prevalencia. *Psicología de la Violencia*, 7(2), 224-241. <https://doi.org/10.1037/a0040194>
- Wolfe D. A., Scott K., Wekerle C. eta Pittman A. L. (2001). Child maltreatment: Risk of adjustment problems and dating violence in adolescence. *Journal of the American Academy of Child y Adolescent Psychiatry*, 40(3), 282-289. [http://dx.doi.org/10.1097/00004583-200103000-00007](https://doi.org/10.1097/00004583-200103000-00007)
- Wolfe, D. A., Wekerle, C., Scott, K., Straatman, A. L. eta Grasley, C. (2004). Predicting abuse in adolescent dating relationships over 1 year: the role of child maltreatment and trauma. *Journal of Abnormal Psychology*, 113(3), 406-415. [http://dx.doi.org/10.1037/0021-843X.113.3.406](https://doi.org/10.1037/0021-843X.113.3.406)
- Ybarra, M. L., Espelage, D. L., Langhinrichsen-Rohling, J. eta Korchmaros, J. D. (2016). Lifetime prevalence rates and overlap of physical, psychological, and sexual dating abuse perpetration and victimization in a national sample of youth. *Archives of Sexual Behavior*, 45(5), 1083-1099. [http://dx.doi.org/10.1007/s10508-016-0748-9](https://doi.org/10.1007/s10508-016-0748-9)
- Zarza, M. J. eta Forján, M. X. (2005). Estudio de la violencia doméstica en una muestra de mujeres latinas residentes en Estados Unidos. *Anales de Psicología*, 21(1), 18-26. <https://revistas.um.es/analesps/article/view/27081>